

# BEGOÑAZPI

## ASTEKARIA

2023ko urriaren 6a




BEGOÑAZPI IKASTOLAN UMEEN GARAPEN EZIN HOBEA SUSTATZEKO, MENU OSASUNTSU ETA OREKATUA ESKAINTZEN DOGU. HORRETARAKO, ELIKADURA OSASUNGARRIA KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAIILEEN ERAKUNDEAREN JARRAIBIDEAK KONTUAN HARTUTA, IKASTOLATIK KANPO EROATEN BE LAGUNTZEN DOGU.



GORPUTZ  
ADIMEN

# OSASUNTSUA



## ELIKADURA ERDIGUNEAN

Ikastolak, menua egiterakoan KEEak (OCU) jarraitzen dauzan irizpideakaz bat egiten dauala esan daitekegu. Dakizuenez, urte batzuk daroaguz, dieta osasuntsu eta orekatua lortu asmoz, elikadura osasungarriaren plana lantzen. Horregaitik, hobetu nahian eta hori gitxi balitz, programa hau Ikastolatik kanpo be lantzeko modua eskaintzen dogu, besteak beste, familiei aholkuak, errezetak, elikadura-ereduak...igorriz.



### ORDEZKARIAK MARTXAN

Daborduko hasi dira ikasturtean zehar ikasleen arteko bizikidetzaz sustatzeko ordezkariekin egiten doguzan bilerak. Aurten be, ikasgela bakoitzeko bozeramaile izateaz gain, Ikastolan egon bitartean, adiskidetasun, egokitasun eta oreka bermatzen lagunduko deuskue, zelan, ez! Hona hemen, DBH 1. eta 2.mailako ordezkariak.

**GEHIAGO**

### GUNE BARRIEN ARRAKASTA

Hiru urteko txikiek zenbat gozaten daberen egokitutako espazio barriez. Dakizuenez, umeen garapena lantzeko diseinatu doguz, hau da, estimulazioa sustatzeko, motibatze, esperimintatzeko eta segurtasuna nahiz konfiantza irabazteko. Begoñazpi eredia da.



**GEHIAGO**



### LH 2: ARTEA ZAINETAN

Motibazioa eta kontzentrazioa ikasgelan. 'Arts' irakasgaietan, artea eta ingeleza uztartzen dogu. Plazerra da ikasleak lanean ikustea.

**GEHIAGO**